
2016ko NAFARROKOA AURREKONTUEN BALORAZIOA

Oinarrizko errenta bezalako gai garrantzitsu batzuetan aurrerapausuak eman badira ere, 2016ko aurrekontuak ez nahikoak dira nafar langileriak behar duen aldaketa sozialari ekiteko. Izan ere, gastu publikoan inbertitutako Barne Produktu Gordinarekiko portzentaiari dagokionean Nafarroa Europako azken postuetan dago. Aberastasuna egon badago, baina aberastasun hori ez da modu egokian banatzen.

Hiru egiturazko aldagaiek mugatzen dituzte aurrekontu hauek: burujabetza falta, zorpetze gorrotagarria eta gainbehera joan den presio fiskala. Nafarroako Gobernuak nahiz berau sostengatzen duen gehiengo parlamentarioak urratsak eman beharko lukete hiru erronka horiei aurre egiteko.

Burujabetza faltak baldintzatutako aurrekontuak

Nafarroaren burujabetza faltak Madrilen diktatutako arau fiskal eta aurrekontuen inguruko arauen ezarpena dakar berarekin, hala nola, gastu sabaia, Estatukoaren pareko presio fiskala edo zerbitzu publikoak garatzeko mugapen estuak. Aurrekontu politikarekin batera nafar herritarren lan eta bizi-baldintzak hobetuko lituzketen neurri legislatiboak ezartzea ere eragozten du.

Burujabetza falta adierazten duen beste elementuetako bat Nafarroak Estatuari derrigorrez egin beharreko "ekarpena" da. Bertan jasotako hainbat kontzeptu ordaintzearen aurka gaudela berresten dugu (Koroa, Defentsa, AHT, Estatuaren Zorra...).

Aurrekontu-mugapenak lehenbailehen bertan behera geratu beharko liriateke. Positiboa da Nafarroako Parlamentuak pleno monografikoa egitea erabakitzeke eskubidaren aurrean, hala ere, premiazkoa da Nafarroaren burujabetzaren aldeko estrategia sozial eta instituzionala martxan jartzea, baita esparru fiskal eta aurrekontuetan ere. Faltan botatzen dugu Gobernuaren jarrera aktiboagoa estrategia horren diseinu eta garapenean. Zentzu honetan, gure ustez ezin dira aurrekontu batzuk instituzionalki aurkeztu eta defendatu Nafarroaren burujabetza gabeziari buruzko jarrera instituzional argia hartu gabe.

Zorraren zama

Beste alde batetik, UPN eta PSNk garatutako porlanaren politikak sortutako zorraren zama dugu. Amortizazio gastu eta interesak 459 milioi eurotara heltzen dira. Azkenik, gehitu beharko liriateke Logroño eta Pirinioetako autobideetako nahiz Nafarroako Ubideko "itzalpetako bidesariaren" tranparen bidez ezkututako zorraren ia 78,5 milioiak. Horiek gehituta, zorraren ordainketara 537,5 milioi bideratuko dira, Eskubide Sozialetara (368,9 milioi) eta Garapen Ekonomikora (187,3 milioi) bideratutako aurrekontuen baturatik gertu dagoen kopurua.

Argi dago egungo Gobernuak ez dela zorpetze honen erantzulea, baina premiazkoa da zorraren auditoritza egitea partehartze sozialarekin gai honi buruzko neurri politikoak hartu ahal izateko. Ezin da zorra ordaintzen jarraitu kontu tekniko hutsa izango balitz bezala.

Patronalaren gaineko presio fiskal eskasa

Hirugarrenik, derrigorrezkoa da ez nahikoa den diru-bilketa aipatzea. Hau azken urteotan errentsa altuak eta patronalari mesede egiteko UPN, PP eta PSNk hartutako neurrien ondorio da.

Nafarroako Gobernuak aurkeztutako erreforma fiskalak, zorionez, azken urteotako joera erregresiboa apurtzen du, baina ez da nahikoa. LAB bereziki kritikoa da aurkeztu den Sozietateen Zergaren aurrean: esplotazioko soberakin gordinak (nagusiki enpresarioek eta "profesional liberalek" boltsikoratzen dutena) %24,43 egin du gora (2.143 milioi euro) 2005etik 2014ra, enpresentzako zergek %30/32,5/35etik %28/23/19ra jaitsi dira enpresa txiki ertain eta handietzat hurrenez hurren. Gobernuak planteatzen duen aldaketa minimoa da, %25etik %28rainoko igoera enpresa handientzat.

Dedukzioen ondoren enpresek ordaindu behar duten gutxienekoari dagokionez. %10etik %13ra pasatu da, are gehiago murriz daitekeena I+G+Bgatik enpresaren tamainaren arabera. Lehenik eta behin, zoru hau benetan izan beharko litzateke murriztu ezin dena eta bigarrenik, zoru hori nabarmen igo beharko litzateke enpresa



guztientzako orokorrean eta handientzat bereziki.

Era berean, Ogasuneko ikuskatzaileen lan-taldea zabaldu behar da, Europako batazbestekoaren azpitik dagoena, iruzur fiskala murrizteko, batazbestekoaren gainetik dagoena. Izan ere, proportzionalki alderantzizkoa den harremana dago ikuskatzaileen kopurua eta iruzur fiskaleko bolumenaren artean, nagusiki enpresa handiek eta euren injenieritza fiskaleko ekipoek egina.

Erreforma fiskalaren aurrean CENek azaldutaok kexuak antzerki ziniko baten parte dira, Gobernuak harago joan ez dadin lortzeko. Errealitateak BPGren proportzio handiagoa poltsikoratzen duen bitartean, soldatetara bideratutakoaren batura gairatutako punturaino, langileak dira zerga bidez ekarpen handiena egiten dutenak.

Gastuari dagokionez: nahikoa ez den gastu sozialaren hazkundera

Gastu ez finantzieroa, hau da, sailen politikak ordaintzera bideratutako gastu operatiboa (baina AHTren lanak kontuan hartu gabe) %4 egiten du gora, 135,4 milioi euro gehiago 2015eko aurrekontuarekiko. Gastu publikoaren proportzioak BPGrekiko gora egiten du piska bat 2015eko %19,9tik 2016ko %20,1era, baina 2010ean inbertitu zen portzentaia baino nabarmen apalagoa da (%21,5). Aurreko Gobernuak onartutako enpresari eta errenta altuei egindako beherapen fiskalen ondorio zuzena da, aipatu den moduan Gobernu honek behar bezainbeste zuzendu ez duena. Beste modura esanda: Nafarroan badago aberastasun nahikoa modu nabarmenean gastu publikoa handitzeko.

Hezkuntza, Osasungintza eta Eskubide Sozialak bideratutako gastu publikoa 1.956 milioi eurokoa da, hau da, 2015ean baino %6,2 gehiago (Hezkuntza: +4,9%. Osasungintza: +6%. Eskubide Sozialak: +9,2%). 114,6 milioi euro gehiago egongo dira arlo hauetarako. Berezi aipagarria da Eskubide Sozialen eremuan izandako hazkundera, bazterketa sozialaren kontrako neurrietan islatu dena. Oinarrizko errentarekin egindako ahalegina aitortu beharra dago.

Edozein kasutan ere, planteatutako gastu soziala erabat ez nahikoa da krisiaren nahiz UPN-PSN eta UPNren Gobernuak eragindako murrizketen ondorioei aurre egiteko. Urruti gaude oraindik 2010ean politika sozialei begirako egindako inbertsio mailatik (maximo historikoa¹) eta ordutik arlo honetako beharrak nabarmen hazi egin dira.

Hezkuntza eta osasungintzan inbertitutako Barne Produktu Gordinaren portzentaia Europako beste herrialdeekin alderatzen badugu, ondorioa negargarria da. Aberastasun handiagoa duten herrialdeetan, aberastasun horren portzentaia handiago bat eskaini ohi da hezkuntzari eta osasungintzari; Nafarroan, berriz, ez da horrela gertatzen.

Pertsonal gastuak: erosmen-ahalmena betikotu egiten da, aparteko soldataren ordainketa osoa atzeratzearekin batera; ez da aurreikusten kontratazio berririk

Administrazioko langileentzat %1eko soldata igoera aurreikusten da. 2012an ezabatutako aparteko soldatari dagokionez, %25 besterik ez da berreskuratuko aurten, beste %25 aurreragorako utzita. Erabaki hau alde bakarrez hartu du Gobernuak eta eskasa da erabat administrazioko langileen erosmen ahalmena berreskuratzeke. Izan ere, 2010eko %5eko soldata jaitzierari hurrengo bost urteetako soldata izozketak gehitu behar zaizkie. Erosmen ahalmenaren galera bereziki larria da D eta E mailetan; ez dezagun ahaztu azken honetan 1.000 euro inguru jasotzen dutenak izan badirela.

2012ko aparteko soldataren berreskurapena 2017ra arte atzeratuko da, kendu zutenetik bost urtera. Nafar ogasunak ez du horrelako atzerapenik onartzen langileon betebeharrak fiskalei dagokionean.

Baina larriena zera da: aurreikusitako diru partidekin ezin izango da apenas kontratazio berririk egin; ondorioz, zerbitzuen kalitatearen hobekuntzan ezin izango da urratsik eman. Salbuespena, suhiltzaileen oposaketak, afera honetan eskaera sindikala aintzat hartu baita².

Azkenik, beharrezkoak ez diren arloetan dirua aurrezteko aukera galdu da, esaterako burutzen kopurua murriztuz edota segurtasun pribatuko zerbitzuak ezabatuz.

(1) Nafarroako Gobernuaren datuen arabera, 2011an 2.312,7 milioi euro inbertitu ziren politika sozialean. Baina bertan Hezkuntza, Osasungintza eta Eskubide Sozialen eremutik kanpoko gai batzuk ere azaltzen dira; ondorioz, ezinezkoa da konparaketa zehatz bat egitea.

(2) Oposaketak aurreikusten dira, halaber, Hezkuntza, osasungintza eta administrazio nukleoan. Baina kasu hauetan, suhiltzaileen kasuan ez bezala, behin behineko plazen kontsolidazioa egingo da, eta ez plaza berriak sortu.

Gastu publikoa, interes pribatuen mesedetan?

2015ean bezala, hainbat hitzarmenei eutsi egiten zaio osasungintzan: 17 milioi San Juan de Dios klinikarentzat, 8 milioi “Clínica Universitaria”rentzat, 3,8 milioi beste zentro batzuetan egindako asistentziarengatik... Hasiere batean, “Clinica Universitaria”ko langileen osasun arreta ordaintzeko 5,1 milioi euroko hitzarmena mantendu egin zen; abenduan egindako Kontseilu Ekonomiko eta Sozialean, LABek eskatu zuen partida hau ezabatzea, diru publikoz hainbat lagunen aseguru pribatua ordaintzea suposatzen baitzuen. Zorionez, Gobernuak partida hau ezabatzea erabaki du. Beste alderdi positiboa, deribazioen kontzerturako aurreikusitako murrizketa, 2,4 milioitik 1,4 milioi eurora.

Bestalde, hirugarren adineko egoitzen, interbentzio sozialaren, desgaiasunen arretarako zentroen, informatika zerbitzuen eta abar luze baten kudeaketa privatizatuari eusten zaio. Egia da Gobernu berriak ez duela denborarik izan privatizazioekiko alternatibak martxan jartzeko, baina urtez urteko publikifikazio plana osatu beharko luke Gobernuak lehen bailehen.

Arlo ekonomikoan, ekimen enpresarial pribatuaren zerbitzura aritzen den Administrazioaren ereduari eusten zaio. Deigarria da Patronalak gastu publikoa gehiegizkoa dela salatzen duen bitartean enpresa pribatuen aldeko gastu publiko gehiago eskatzea: gainontzekoei begira neoliberalak dira, baina errai publikoetatik edaten jarraitzea dute helburu. LABen iritziz, gastu publikoa egitasmo enpresarial publikoetara bideratu beharko litzateke, baita enpresarien abandonoaren aurrean enpresa martxan jartzea apustu egiten duten langileen eskuetara edota ekonomia sozialeko ekimenetara ere. Eta hori guztia, klausula sozial jakin batzuen betekizunera baldintzatuta, hala nola dagokion hitzarmenaren betetzea, aukera berdintasuna edota lanaren banaketa.

UGT, CCOO eta Patronalarekin egindako hitzarmenei dagokionez, begi onez ikusten dugu Garapen Ekonomikorako Sailetik ezabatu eta Eskubide Sozialen Sailean erdira murriztu izana; azken honetan, gainera, UGT, CCOO eta Patronalarentzako hitzarmen nominalak izateari utzi eta sindikatu eta elkarte enpresarialekin egin beharreko hitzarmenak bilakatu dira. Alabaina, enplegu politika aktiboen parte bat sindikatu eta enpresariekin azpikontratatzearen kontrako jarrerari eusten dio LABek. Sindikatuok, alderdi politikoei bezala, ordezkartzaren araberako dirulaguntzak jaso behar ditugu, baina ez politika publikoen kudeaketa.

Obrak gelditu bai baina ez da AHT guztiz baztertzen

Aurrekontuetan badira bi diru partida AHTarekin lotuta: “Proyecto y dirección de la obra del TAV”, 785.000 euro; eta “Estudio solución provisional tercer hilo con Y Vasca”, 150.000 euro.

2015ean ez bezala 2016rako lurjabetzetarako edota obretarako inbertsiorik aurreikusten ez bada ere, aipatutako diru partidak mantentzeak zera esan nahi du: Nafarroako Gobernuak ez du oraindik behin betiko baztertu AHTaren egitasmoa. Areago eta gehiago, ematen du geldialdiaren arrazoien artean pisu gehiago duela Estatuak inbertsiorik ez egiteko hartutako erabakiak, AHT gelditzeko Nafarroako Gobernuaren erabaki estrategikoak baino.

LABek AHTren egitasmoaren kontrako jarrera berresten du, baita egitasmo horrekiko osagarriak diren ekin-tzekiko ere (euskal Yarekiko lotura, Etxabakoitzeko PSIS...).